

# SARAUBE BERRIAK

Aiarako Udalaren aldizkaria #143  
2024ko MARTXOA / MARZO



## Martxoaren 8ko egitarau zabala abiatu dute Aiaran

Urtero bezala, Aiara Berdintasunaren Alde Foroak hainbat ekintza antolatatu ditu Martxoaren 8ko kanpainen, emakumeen eskubideen alde. Aurten, zehazki, martxoaren 3an hasiko da, Lilatoira joateko gonbitearekin hain zuzen. Urtero, Aiarako Biltokiak antolatzen du Donostiako lasterketa parte hartzeko izen-ematea eta Udalak autobusa eskainiko du aurten ere.

Hurrengo ekintza martxoaren 7an izango da Llanteno Eskoletan 18:00etan, eta umorezko antzerkia egingo dute, Pitonisa feministarekin. Martxoaren 8an, 11:00etan Aiarako emakumeek egindako ekarpeni buruzko hitzaldia egongo da Alday Egoitzan, udalerriko emakumeek egindako lana eta ekarpenak bistaratzeko. Inma Roiz idazle okondarra izango da bertan.

Arratsaldeko 18:00etan, kontzentrazioaren ordua helduko da Ferialean, ostean Aiaraldeko manifestaziora joateko.

Martxoaren 9an, 17:00etan, zineforuma egongo da Menagarain, bertako Emakume Elkarteak antolatuta. Martxoaren 17an, aldiz, Berdintasunaren aldeko Martxa Neurtua izango da, eta urtero bezala, Amurrio, Luiaondo eta Laudio lotuko dute ibilaldi batekin. Martxoaren 27an Aiaraldea Femprende proiektuak bigarren urtea hasiko du, emakume ekintzaileentzako topagunea eskaintzeko, laguntza emateko eta euren artean ekintzaileen sarea sortzeko. Proiektua Berdintasun zerbitzuaren eta Zabaia Landa Eremuko elkartearen arteko elkarlana da. Lehen saioa Emakumeen Gelan izango da, 17:00etan.

*Ayala se implicará, un año más, en el Día Internacional de la Mujer y las actividades comenzarán el 3 de marzo con la participación en el Lilatón, para lo que se organizará un autobús. A lo largo de todo el mes, además de la concentración del propio 8 de Marzo a las 18:00 en el Ferial de Respaldiza, se llevarán a cabo una obra de teatro, un cinefórum, una charla sobre las aportaciones de las mujeres ayalesas de la mano de Inma Roiz y una nueva edición de la red de apoyo a mujeres emprendedoras Femprende.*

## Gaztelekuan ere Martxoaren 8ra lotutako jarduerak egongo dira

Gaztelekuko lehen hamabostaldian hiru ekintza prestatuko dituzte Emakumearen Nazioarteko Egunari lotuta. Martxoaren 2an 18:00etan Kahoot feminista egingo dute eta Martxoaren 8an dauden

mobilizazioetara batuko dira. Azkenik, martxoaren 10ean feminismoari lotutako pelikula eskainiko dute. Bestalde, hileko 16an Slime eta F.E.N. tailerra egingo dute eta 23an, aldiz, graffitiari buruzkoa.

*El Gazteleku hará un hueco al Día Internacional de la Mujer con tres actividades en marzo: Kahoot feminista, adhesión a las movilizaciones y cine.*

## Medidas para salvar 180 caseríos que se encuentran junto a las carreteras



En el mes de febrero tuvo lugar una comparecencia ante la comisión de Movilidad de Juntas Generales de Alava para explicar la problemática de los caseríos que están junto a las carreteras en una distancia entre 0 y 25 metros. En esos casos, solo se permiten trabajos de mantenimiento y conservación en los edificios, por ejemplo, el cambio de tejas. No se aceptan, por tanto, intervenciones de consolidación que repercutan en la estructura.

Esto hace que caseríos antiguos donde se ha vivido en las mismas condiciones desde hace 40 años, necesiten de una remodelación cuando descendientes de las personas propietarias quieren renovarlas o compartir la vivienda con sus progenitores. La riqueza del patrimonio en Ayala está en la abundancia de sus caseríos. La mayoría de ellos tienen protección municipal baja. Sin embargo, el hecho de que las necesidades de la carretera estén por encima de las de los edificios, condena a que un número, en torno a 180, estén abocados a su desaparición. Por eso mismo, el Ayuntamiento de Ayala exigió a la Diputación que aborde el problema en beneficio de la ciudadanía.

*Otsailean agerraldia egin zen Arabako Batzar Nagusietako Mugikortasun batzordearen aurrean, errepideen ondoan dauden baserrien arazoak azaltzeko. Baserri horiek bidetik 0 eta 25 metro arteko distantzian daudenean, mantentze- eta kontserbazio-lanak bakarrik onartzen dira, adibidez, teilak aldatzea. Ezin da egituran finkatze-lanik egin. Ondorioz, duela 40 urte baserriek ez dute birmoldaketarik egin eta beharrezkoak dira, jabeen ondorengoek etxebizitza gurasoekin partekatu edo bizi-baldintza berrietara egokitzeko. Hain zuzen, Aiarako ondarearen aberastasuna bertako baserrien ugaritasunean datza. Gehienek oinarrizko udal-babesa dute, baina errepidearen beharrak errepideen ondoan dauden baserrien premien gaintik daudenez, 180 inguru desagertzera behartuta daude. Gauzak horrela, Aiarako Udalak exijitu dio Aldundiari arazo horri heltzeko eta irtenbide bat emateko udalerriaren eta herritarren mesederako.*

## Baso kudeaketa jasangarria



Datorren martxoaren 15ean 18:00etan, zuhaitzen eguna dela eta, hitzaldia egingo dute Arespalditzako erabilera anitzeko udal aretoan, baso-ustiapen iraunkorrari buruz. Labore horren ondoriozko basoek balio handia dute biodibertsitatearen alorrean, eta uraren zikloa hobetzen dute, bi ezaugarri oso garrantzitsu larrialdi klimatikoari aurre egin ahal izateko, baina kudeaketa eredu horren ardatza da inguruan bizi diren komunitateen ongizatea eta biziraupena.

Hitzaldira bertaratzen diren herritar guztiek aukera izango dute kudeaketa alternatiboko esperientziak entzuteko. Ekitaldi irekia izango da eta Administrazio Batzarrei bideratuta badago ere, edozein herritar interesdunek parte har dezake.

*El próximo 15 de marzo a las 18:00, con motivo del Día del Árbol, se celebrará una charla en la sala multiusos de Respaldiza sobre la explotación forestal sostenible, que genera bosques con mayor biodiversidad y que mejoran el ciclo del agua. Quien se acerque escuchará distintas experiencias de gestión alternativa.*

## Aiarako Udalak mugikortasuna hobetzeko proposamena egin dio Arabako Foru Aldundiari

Udalak dagoeneko mugikortasuna hobetzeko proposamena egin du. Tokiko erakundeak eskerrak eman nahi dizkie horretan parte hartu duten guztiei. Zehazki, proposamen horiek Foru Aldundiko Mugikortasun Jasangarriaren

eta bide azpiegitura Sailera bidali dituzte. Zer erantzungo duten zain geratu da Udala, baina bitartean mugikortasuna hobetzeko bere esku dagoena egiten saiatuko da, ibilgailua partekatze aplikazioa aztertzea, besteak beste.

*El Ayuntamiento de Ayala ya ha hecho llegar al Departamento de Movilidad Sostenible e Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral su propuesta para mejorar la movilidad en el municipio.*



## Aiarako Birako edizio berriak 35 talde erakarriko ditu udalerrira



Aiarako Biraren ospe ona geroz eta handiagoa da eta hori nabaria da kanpoko taldeen eta ezaugarriengatik. Izan ere, 35 klubek egingo dute topo irteeran eta estatu espainiarreko txoko guztietatik bertaratuko dira Aiarara; Kataluniakoak, Kanariar Uharteetakoak, Kantabriakoak, Madrilgoak, Asturiasekoak...

Txapelketa martxoan lehiatuko da eta Aiaraldea ia osorik zeharkatuko du. 9an Okondon 16:00etan hasi eta udalerrin berean amaituko da etapa. Hurrengo egunean Laudioko herrigunean izango dute ibilbidea eta 10:30ean abiatuko dira txirrindulariak. Hileko 16an Arespalditzan egongo da abiapuntua 16:00etan eta erlojupekoa izango da etapa. Hurrengo egunean lasterketa osoko probarik gogorrena egingo dute, Orozkotik abiatuta 10:30ean, Menagarain amaitzeko. Martxoaren 23an 16:00etan Artziniegan ekingo diote azkenaurreko etapari eta hurrengo egunean izango da azken hitzordua Amurrion 10:30ean. Luiaondoko Aiala Txirrindularitza Taldeak arduraren bikoitza izango du aurten. Alde batetik, antolakuntza. Bestetik, iaz lortutako emaitza bikainak errepikatzea; talderik onena izan zen eta Iker Colmenero txapelduna.

*La Aiarra Bira continúa labrándose una excelente fama entre el pelotón y buena muestra de ello es que la edición de este año va a gozar de la participación de 35 equipos de todo el estado, desde las Islas Canarias a Catalunya, pasando por Madrid o Asturias. La carrera comenzará el 9 de marzo en Okondo a las 16:00. Al día siguiente la salida estará en Laudio a las 10:30 y continuará el 16 de marzo en Respaldiza con una contrarreloj que arrancará a las 16:00. El 17 el recorrido más decisivo de la carrera tendrá su inicio en Orozko a las 10:30 y finalizará en Menagarai. El 23 de marzo llegará el turno de Artziniega a las 16:00 y la competición acabará en Amurrio el domingo. Este año, el equipo local Sociedad Ciclista Aiala, además de tener la responsabilidad de organizar la prueba, deberá defender el doble título que obtuvo en la edición anterior. El liderazgo que tuvo Iker Colmenero y el galardón de mejor equipo.*

## Difusión en Whatsapp



El Ayuntamiento de Ayala recurre, entre otras plataformas y recursos -como su página web [aiarakoudala.eus](http://aiarakoudala.eus)-, a la difusión de sus novedades mediante un grupo creado con ese propósito en la aplicación Whatsapp. Esta red social, sin duda una de las más utilizadas y comunes en todo el mundo, le sirve a la institución local, principalmente, para compartir carteles y mensajes y de ese modo, informar de las actividades culturales y sociales que se llevan a cabo en las distintas Juntas Administrativas del municipio.

Unirse a este grupo es sencillo y basta con ponerse en contacto con el número de teléfono 615 788 146. Hasta el momento, casi 300 personas participan en esta iniciativa para estar al tanto de cuanto acontece en Ayala.

*Aiarako Udalak Whatsapp aplikazioa baliatzen du udalerrian egiten diren jardunaldi kultural eta sozialen berri emateko, zabalpenerako talde baten bitartez. Jadanik 300 lagunek inguruk parte hartzen dute taldean eta izena emateko 615 788 146 telefono zenbakiarekin harremanetan jartzea nahikoa da.*

## Una charla en abril para disponer de claves con las que identificar y tratar la ansiedad

Invitada mediante el programa de Aulas para mayores de 55 años, la psicóloga Joana Díaz de Alda expondrá el 19 de abril a las 17:00 en el Centro Social Otqueta de Luiaondo en qué consiste la ansiedad y qué medidas se pueden adoptar para

mitigarla. El Ayuntamiento de Ayala ha abierto ya el plazo de inscripción en el número de teléfono 945 39 90 13, para que las personas interesadas en asistir a la conferencia puedan solicitar un servicio de transporte.

*Antsietatea zer den eta nola egin ahal zaion aurre azalduko du Joana Díaz de Alda psikologoak apirilaren 19an Luiaondoko Otqueta Gizarte Etxean. 17:00etan izango da eta garraio zerbitzua eskaini du Udalak.*

# Familiarentzako jarduerak

## XABOI TAILERRA TALLER DE JABONES



izena emateko deitu 945 39 90 13 zenbakia martxoaren 25etik apirilaren 5era. Plaza kopuru mugatua. Para participar llama al 945 39 90 13 del 25 de marzo al 5 de abril. Plazas limitadas

Aiarako Udalak bi programa ditu indarrean familian gozatzeko. Alde batetik, Zapatu Ero dago, lau urtetik gorakoentzat edo 2-3 urtekoentzat, baldin eta gurasoekin badoaz. Honetan bi tailer egingo dituzte, martxoaren 23an eta apirilaren 13an. Kandelak eta xaboizko barraskiloak egingo dituzte. Plazak mugatuak dira eta izena eman beharra dago martxoaren 7an baino lehen eta apirilaren 5ean baino arinago 945 39 90 13 telefono zenbakian. Horrez gain, Igande Arratsaldeak Familian egitasmoaren saioa martxoaren 17an izango da Arespalditzan 17:30ean.

## Cocinar sin azúcar

La herbóloga Guillermina García ofrecerá el 12 de abril a las 17:00 en el centro social de Respaldiza un taller para aprender a cocinar sin necesidad de recurrir al azúcar en la elaboración de postres dulces. En su lugar, la especialista propondrá el uso de otros ingredientes como agave o estevia. El Ayuntamiento desea que las personas participantes puedan disfrutar de una charla agradable, acompañada de un café y en un ambiente relajado. Quienes tengan interés en solicitar transporte público para acudir pueden llamar al 945 39 90 13.

# Agenda

1

## GIMNASIA CEREBRAL Ejercicios prácticos para activar las neuronas y fortalecer el cerebro

Llanteno, Escuelas, 17:00

2

## KAHOOT FEMINISTA Gazteentzako jardura

Luiaondo, Gaztelekua, 18:00

3

## LILATOIA Donostiako lasterketan parte hartzea

Arespaldiza, Feriala, 08:00

6-14

## CURSO Smartphone y tablets. Aprende a utilizar tu dispositivo Android

Respaldiza, KZGunea, 11:00

7

## TEATRO CÓMICO Pitonisa Feminista

Llanteno, Escuelas, 18:00

8

## CHARLA Aportaciones de las mujeres de Ayala, Inma Roiz

Respaldiza, Centro Alday, 11:00

## KONTZENTRAZIOA Martxoak 8 Emakumeen eguna

Arespalditza, Feriala, 18:00

9

## CINE Documental sobre Micaela Portilla

Menagarai, Escuelas, 17:00

10

## ZINEMA Gazteentzako ekintza

Luiaondo, Gaztelekua, 17:00

15

## GIMNASIA CEREBRAL Ejercicios prácticos para activar las neuronas y fortalecer el cerebro

Llanteno, Escuelas, 17:00

15-17

## GRAFFITI TAILERRA Gazteentzako jardura

Luiaondo, Gaztelekua, 18:00

15-18

## IKASTAROA Google Drive

Arespalditza, KZGunea, 11:00

16

## CURSO Estampación floral, inscripción en oficinas municipales, 8 euros

Luiaondo, Centro Social Otueta, 11:00

17

## BERDINTASUN MARTXA Marcha regulada por la Igualdad

Laudio, Amurrio, Luiaondo



### Whatsapp municipal

Si quieres informarte de la actualidad de Aiara, súmate a las más de 290 personas que ya están apuntadas en el número de WhatsApp 615 788 146.